

KULUBIS

IRAKURGAYA

(Azkoitia-ko euskal jat-aldietan aldeera irabazia. 1910.)

I

ECHE-chiki bat bazan, nik dakidan itsaserri batean, itsasoaren er-tzian, goi-samar, ra mendi aundi baten egalean zirauna. Mendi-yaren belaun-giltza zirudien, arkaitz zar ta zulatu batek eutsitzen zuen, baiñan nola eutsi! mami-mamikoa izan balu lez. Goyan, echea-ren goyan, soro polita bazan, azak, porruak, marrubiyak ere, beren garaiz, zemazkiena; bean, lanpernak, eskumuturra ain lodiyak, ede-rrak, galantak, eta garbiyak, gezalak zebilzkielako beti busti-aldi be-rritan.

Inork etzekien zeñeri otu zizayon arkaitz-gain artan echea egitea: arrantzale zimarkuna izan bear zuela egillea auzo batzuek zioten: ero-so zetorkiolako eche artatik amo-lapur arrantza, egingo zuela zesaten beste auzo-gizonak, ta guchigo masiantzan mingaña zerabiltenak esan oi zuten: echearen jabe-egillea izan balitz pistiya, gabiraba izango zala.

Echearen zañak arkaitzean biribilduta itsasoraño iristen ziran, ta gezalak beti bere kutsua dariolako, gasi-gasi zirauten itsasbordako or-mak, tellape, gelak eta zurak.

Esan oi zan eche artzaz :

Gashi-gashi-gashi kuchu
amalka bider urak mushu.

Mušu bai!..... Zapuzkeriko muşuak!.....

Eche arrek, itsasoak muturrak aspotu-ta bustitzen zuenean zapuz-ki, ekaitzak zartadaz astitzen zuenean, urak eta eudijasak parra-parra bleitzen zutenian, aizeak iraiñezko ckistu latz ta zorrotza zeriola, bin-

bilin-banbalan barrengo tresna puškak zerabilzkienean, etzirudien as-nase baten unean zutik egongo zanik.


Chistu!-chistu! bendebala!.....
Gaur bai kulubishtarrak
istillu gogorra.

Galipotez igortsiya zan betik goraño: sarbidetik laister sukalde pitin bat, urrena gelak lautaraño, ta asken beste gela bat zuen, soka, saski, zira, kanabel, sare t'abarren gordelekua.

Kulubis zeritzan eche artako nagusiya, odolte -odoltez zetorkion ezizena, tagizaldi-gizaldietan beti entsuna.

Kulubištarrak aita, ama ta bi seme ziran. Amonacho bat bazuten, andrearen ama, ta kulubištarren etsan zalako zartzaroko makaltasunean, Kulubis-atsoa zeritzoten kaitarrak.

Kulubis-amak echeko arreta ta chukuntasuna zeuzkan; atsoak naya ta baliyo-eza; aitak ta seme zarrak,



batel chiki batean, arrai chikitako arazoa geyenian ziarduten. Bišigutea edo atuntzua zetorrenean beste chalupetarako lankide eratzen ziran. Seme gazteak chalupa-mutillen ajola zeukan : zelatatu aita ta anaya noiz zetozen itsasotik, batela ondo garbitu ta chukatu, bira ta bira purrungillean lanbasa eraballi, ta noizean bein, aitari zeritzanean, ichasoari arpegi eman, beragana odola ta enaya zaletzeko.

Kulubis gaztea da nere Kulubis. Mutill koskorrak beti dituzte jolasterako griña biziya : beti jostale dakarte biyotza, ta eren odolak, buruak ta giroak, jolasbideak damazkiete. Kulubisek amar urte eskas zeuzkan, baiñan echeko bearrak, ta aitaren aginduak limortzen zuten zegokion lanera. Etzan erresa ordia echean idukitzea, lanaren amaitza zetorrenean. Laisterka joango zan kai-burura, etzegoen bada eche-tik urruti, bide chigor gaizto bat igaro bear zan bañon; anchen bere kirako mutillakin ibilliko zan jolatzean, batean *gordeketan*, bestean

solomosoetan, bestean..... nork dakizki itz guchiz adierazoten mutill chikien jolas-motak?.....

Kabuša, Korkoya, Karraspiyua, Karramarrua, t'abar ziran Kulubisen adiskideak. Ez beti, aldi-askotan baño ibiltzen ziran mutur-joka, arrika, atsamurkadaka, zilipurdika lurrean, gaztaroak birikatik zinzilika ekartzen dituelako orlako t'alako amorraziyo ta zorrozketak. Kayian berriz umeak, emakumeak t'atsoak ez dute ontan ukapenik.

Beingo batez, urberaldiya zala, Kulubis ta Kabuša kai-mingaiñean, ankautzik, ur barrenen zebiltzan. Izkirak arrapatu bear zituztela zesaten, ta besoutzik, ta eren betiko galtza petachatuak belaunetik goruntz biribilduta zebiltzan. Eskuz arrapatu nai zituzten, ez ur lasakoak, eskall-buruetara zetozenak, t'arresipeko orma belardunetan iku ta bira, iku t'itsul jolasten diranak bañon.

Bat arrapatu zuen Kulubisek. Arren poza ta chiliyuak!

Laguna orduan bekaiztu zizayon, t'ontan ezkero, jostarratzaren ari mear bat naiko izaten da akiakulatzat, mutil koskorrak asarratzeko, burrukan ekiteko, ta sudurretik odola dariotela marru-ta-marru gelditzeko.

—Ia, ia, nolakoa dan izkira, esan zuen Kabušak.

—Bestiak bezelakoa, zion Kulubisek.

—Ia, ia.

—Jan diat.

—Jan? Egosi gabe?

—Nik, zintzurrian egosten zetikat.

—Gezurra!, eskuan daukak.

—Ia, ia, ta eldu zuen besotik Kulubis.

—Utsi nazak, bestela.....

—Bestela, zer?

—Izkira bezela jango aut.

—Ondo gozeti etorri aiz. Ez aldeke echean jaten?

Zikotasun zikotasun
pirri-barrak erantzun.

—Isillik ago-e, Kabuša. Etzazkidala chichariak errebiratu.

—Bañan, erakutsi zadak izkira.

—Ez diat nai. Ara or igesi bat. Arrapazak erorrek.

Makurtu zan Kabuša, lotsaz, kiñada bota zion izkirari, baiñan izkira joan zan, *trailla* egin da.

—Arrapatu alde? Nondik? Bišar lušienetik?.....—esan zion Kulubisek.


Orduan Kabušari otu zizayon asmo petral bat, t'otu ta egin. Kulubisi, izkira katibu zeukan esku ichiyan eman zion zartada bat. Eskua idiki zizayon, ta izkira, eup! pozgarri-zesala, itsuli joan zan, naiko par t'algara, bi mutillen bizkar, zegiela. Par geigo egingo zuen ikusi balitu beriala, zalapartaka, joka, bul-tzaka, burruka, bi oñeko urean.

Kulubisek eldu zuen gogorki Kabuša; lepoan atsak ezarrita, nasako or-mari iratsiya zeukan, mingaña aotik kanpora zuela, ta barkapen eske.


—Itoko aut! ito!—esaten zion Kulubisek—. Itoko aut, Kabuša! Ijito beltz ori! ta estutzen zion lepoa b-tere kupira gabe. Orrela zirauten ager-tu zanean beste kai-mingañean, bertan urez baiñan urruti legorrez, Kabušen ama Estepana, andre zabal zaratazalea, bekoki beltza chit. Zekusanean bere semeak ito bear zuela ur chikitan, deadar zegien, ta deadarrak ikaraz jarri zituen kayeko zotarrain, soto, eche ta inguruak. Kulubis ikutu zuen ikarak-e, ta entzun zituenean andrearen deadarrak, laja zuen Kabuša, ta eskalletan gora igo, ta itsuli zan. Kabuša beriala, marrua zeriola, malla beretatik irten zan kai-burura, baiñan etzuen ikusi noruntz joan zan bere areriyua. Estepanak ere etzuen ikusi: oneri zegokion kai mingain batetik bestera alda-tzea semearen alde. Orretarako astia bear zuen: bitartean Kulubis itsasatorrak bere lanak zegizkien.

Kabusak ama bertan igarri menean, negarrari ekin zion gogorkigo. Amaren alboan berriz gertatu oi zaye umeai: negarra ugaritu, t'amorru ta bekaitzak aguro bi azal bota.

Ama-semeak zorrozki zebilzkiten begiyak Kulubis petrala idoro naita; baiñan alperrik, onek, Kabušak baiñan obego, kai-zulotzarrak



zekizkien. Chalupa auzi legorreatuen brankapea, burni sar edo chatar lajien pilloaren azpiyak, echol lisundu-en baten barrena, kai-errietan, naiko gordetegi izaten da mutil gaizkilleentzat. Alperrik ibilli ziran ama-semeak Kulubisen erraztoak uzmatzen. Etzuten idoro. Uste gu-



ziak galdu zituztenian, azaldu zar, Kulubis echerozko bidean zijoala. Isil-isilik Estepana joan balizayo, arrapatuko zuen, baiñan ikusi ta dea-dar egin, bat izan ziran.

—Kulubis! Kulubis!.... Ator onera, ume mutur sikin ori! Ator! Kulubisek ankak astintu zituan, ta urruti sainar jarri zan.

Estepanak oju zegiyon :

—Etorriko zaik chanda! ta leoi emearen amorruez, esan zion :

—Zapalduko zetikat Kulubistar guziyak!..... Zapaldu!.....

Kulubisek, ukabilla gora jaso-ta, besoa t'ukalondoa agertzen zituela, alkandora sar baten erpiñak irrist egin ziolako eskumuturrian, lotsagabe, ta deadarka, erantzun zion ordaiña Estepana-i.

—Nik, bakarrik arrapatzen detanian Kabusa, aterako dizkiot trin-poil ta gantzak.

Ta echerontz joan zan.

RAMON INZAGARAY, *Apaiza.*

(Jarraituko da.)


KULUBIS

II

Entzan artean urtebetea igaro.

Itsaserriko eliza galanta da: bi eskiltegi baditu, arri errimez ta gorrez egiñak, azaltzen dituztelarik argintzako lan trebe t'ederrenak.

Barrendik ederra da; edergarritz guziz ornitua, t'edergarri ballot-suenak altare nagusiko Ama Birjiñaren jarlekuak ditu.



Ama Birjinari ondo da gozkio edergarri oyek, me-sede asko Beragandik jaso dituelako ariantzale-gizadajak.

Apeztegi edo sakristiya elizari dagokiona da: zabal ta galanta: ispillu leyarrak baditu, ta tellapeko agetik zinzilika, burni mear batek eutsitzen dituela, bi pleiterocho. Apeztegiari iratsiya gela aundi bat dago, ta gelan kucha Lar antsiñako bat ezko edo argisari kandelak gordetzeko, eliz batean bada oso bearrak izaten dira, illetarako, elizbiretako, elizakuetarako, ta beste elizkizun askotarako.

Gela ontan alki batzuek illaran jarriyak zeuden goiz batez: alkien aurrean mai bat ta esertoki bat: mai gañean chincharri bar, ta esertokian apaiz-kapelacho bat.

Amaikak danga-danga jo zituen orduariyaren eskillak, t'azkeneko dangatekuakin, iskamil izugarriya sortu zan apeztegiko ate-atean.

Idiki ziran ateak, eta barruntz ume-pilloa zerioten sarbideak; umeak alkarren gaiñka bultzaka, erlebatza lez, batzuek ille-gorriyak, bestiak

ille-belchak, begi-urdiñak, begi-belchak....., baiñan kaitarrak, arpegiz guziyak belchak, eguzkiyak tinka-tinkaro kiskaltzen dizkielako azalak eta larruak. Kaitarrak eta kaletarrak osatzen zuten ume billera ura; kaitarrak baiñan geyenak. Abetzaz da nere ardura.

Apeztegian barrena, len aitatutako gelan zalapartaz sartu ziran, ta beren alkietan jarri. Bakar zeuden, t'umeak, orrela daudenian, uskuratunak, imurtsiyak, kilimakuak, isekak alkarren leyan izan oi dituzte. Kaskutzik zeuden, chapelak eskuan zituztelarik, chapel zulodunak, sarritan ankapean ibiltzen zituztenak, *perracha* deritzan ume-jolasketan. Ankutzik ere zeudela esango nuke, zankoak galtzerdi gabe azaltzen zituztelako, t'oñean zeukazkiten espartñak edo *alpar-gatak* zulatuak ziralako erpiñetik eta erpotik. Ikusgarriyak zeuden orpo-beltzak, eta beats-mando tortikadunak.



Aurreko igandean erakutsi zuen mesa-nagusiyan apaiz jaunak, dotrin erakastea asiko zala, urtero lez, astelenean, umeak gertutzeko lenengo aldiko Jaun-artutera; t'asi zanetik erakastea egun artaraño, lau eguneko bitarte mocha besterik etzan igaro. Kulubiñ, Kabusa, Karraspiyua, t'abar ikasleak ziran.

Apaiz jauna, ziarduen lan artan, etzan gosua; ez bear ere, ume ayei etzegokielako gosotasunik; orrelako arazoan berriz, umeak sala-bardoz ez dira achitzen, amoaz bañon.

Apaiza etzan begiz eskela, buruz ez amotza, gogoz biyotz-bera zan, seaskaz t'azitez arrantzale-odol odolekoa: etziran alderdi charrak ziarduen arazoa betetzeko.

Jolasketari zarraiten umeak apaiza gelan sartu zanean, ta sarrera ta isiltea berdin izan ziran. Apaizak, mai-aurrean belaunikaturik, umeakin batean, esan zuen otoitz labur bat, erdiya latíñez, beste erdiya euskeraz.

Isiri zan ezerlekuan, astin-aldi bat eman zion aurrean zeukan chin-charriyari, t'orduan etzan gela artan euli baten egabiyada ere entzuten.


—Nori, nori, galdera?—esan zuen apaizak; mutillak estu ta larri jarri ziran, eskuak eta chapelak belaun-katilluetan estuturik, arpegiya lurrerontz auspeturik.

Orrela agertzen zuten, galderarik egitea inork nai etzuela, baiñan galdetzeko bearrean zegoen apaiza, aurretik ziurtatu nai zuen bada, ze-

ñek be, zeñek goi zerabillen ikasbidea.

Etzuten, deristanez, ur aundiyen kon-do sakonik eren adimene-tan; ez motelak ziralako aditzez, oiturarik bera zorrozten etzutelako bañon. Piperrak egiten bazekiten, ta mutil piper-zalea ezta izaren eskolari-bizkorra.

Estu ta larri zeuden oraindik: arroketan, irristaka, anka austeko arrizkoz zebiltzarian bañan estugo: amak jipoya berotzen



zientian bañan larrigo: igari zebitzanean, sabiroyak, olagarroak, edo uraren zurrungilloak larrua eltzen zientenian bañan estugo ta larrigo. Au lana!

—Adizak, Anselmo Ugartemendi, nor da Jaungoikoa?

Kulubiñ alcha zan alperki, Anselmo Ugartemendi zalako. Españak

estutu zituen, atsak ibilli buruko kalpar ta ill-mordoan, sudur-zuloan ere bai pitiñ batean, t'ala dio:

—Da ezin *pentzatu* t'esan liteken gauz eder-eder bat: Jaun guziz *poderoso, sabiyua, inmensua, eternua* ta gauza guztien *principio* ta *fiña*.

—Isillik ago! isillik! onelako euskera mordoilloakin. Isillik!.....

Asarratu zan apaiza, ta bidez; bidez ere asarratzen gera euskalzaleak, orrelako iraiñak egin, ta alako zartadak ematen zazkionean euskera maite-maiteari.

—Gaur bertan trukatuko dek *dotriña* ori euskerazkoagatik; gaur bertan. T'esan akiok liburu-zaleari, apaizak esan dikikala, lenbailen trukatzeko. Ara nola esaten duen nik eskuan daukatenak: Da, ezin gogatu t'esan litekean gauz-eder-eder bat: Jaun guzizalduna, osoro jakintuna, alderdi guztietan dagoen Jaun aundiya, betikoa ta gauza guztien egille ta jabea. Entzun alde?..... Esan diat trukatzeko.

—Baiñan.....

—Zer baiñan?

Etzuen gaizki ta bidegabe esan *baiñan* Kulubišek. Etzegoen truketarako bere *dotrin* ura.

Lau eguneko jardunian, azalik etzeukan, ra lumera ta koipea zerion aurreneko ta azkeneo orrietatik.

—Ekatzak! Ekatzak!

Mutillak luzapena eman zion.

—Ekatzak!.....

Atera zuen sakeletik simur ta kiskurra, ta berialašen gogoratu zan apaiza, liburutzalea etzala truketarako egongo.

—Non ibilli dek liburu ori?

—Sotuan.

—Zertan?

—Beitetan.....

—Isiri adi! isiri!..... ta isiri zan Kulubiš pozez ta pozez.

—Beste zimarro bat, Kosme Igarabide, ikasi alde?

Alcha zan Kabuša, Igarabide ta Kosme berari zegozkiolako, ta otz-ikara sartu zizayon oñetatik goruntz mingaño, ta mututu zan ziara mutil kaitar beltza.



—Ikasi aldeak?, galdetzen zion apaizak.

Chapelak ogenik etzuen, baiñan ogendariya izan balitz lez, ortzartean zebilkien Kabušak.

—Ikasi aldeak?


Oraindik chapela aoartean zeukan, ta bildurrak t'ikarak zerbait geigo egin bearra izan zuten mutillaren barrunbean, irten zizaizkion bada, muki nabarrak sudurretik, sispiriyuak aotik, malkochak begietatik, betazeletan zinzilika. Ain larri ta mutu zegoela, Kulubisek far egin zuen, beste malko ta negarren oroitza zekarrelako bere burura agiyan, t'ondoren beste mutillak ere far egin zuten; aski izaten dalako baten

far-arrastoa bestien al-gara gozoa irtenarazitzeko.

—Iso!iso!

asarre zesan apaizak, ta mutillak isildu ziran.

Gero apaizak adieraz, zien garbiro erakasgai eder bati ondo chetu



zituan ikasbideak, chetu- ta eman bear zayelako umeai janari zerutiarra, nola dan kristau-ikasbidea; gogoz zeuden mutillak ikasbidea entzuten, baiñan orduariyak amabiyak jo zituenean, beste zerbaitez oroitu ziran.

«Amabiyak eltzeko aragiyak», esaera zarra da itsaserri ontan.

Angelus, zoragarritzko *Angelus*, zesaten kanpai-dorreko eskillak, t'apaizak eta ume kaitar ta kaletar ayek, oitza zegiten, aingeruaren itzak erasirik.

Zarataz t'otsaz kaleratu ziran: Kabusa zaputzetan, Kulubisi begiyak zorrozki ezarririk. Askatu zitzayon mingaña, t'iraindu zuen Kulubis.

Kulubisek etzion barkatu; beste mutillak gogotan zeuden biyen

asarrea ikusteko, zirika ta mirika ere jardun zuten, t'elizatik ez urruti, kale baztar batean Kulubiñ ta Kabusa zebiltzan zilipurdika, joka, burruka, ukabilkadaka. Gizon batek azkar ayenatu zituan, t'ikusgarriyak zeuden bi kaitarrak orduan: azal beltza zurista zeukaten, illeak zutik, españak odolduak, arpegia, kopeta ta belar-ondoak gorri-gorri zartakoz gorituak.


Apaiza elizatik irten bañan lenago, etzan klean mutillen zantzurik. Echeratu ziran guziyak.

Igaro zan erakastea: egun guziz aundi bat urbil zegoen.

Lenengo aldiz Jauna aitu bear zuten mutillak gertu zituzten lipoi, chamar, galtza t'alkandorak egun artarako sointzat: neskak ere bai eren soñekoak.

Gogo t'anima eratu zuten egjazko garbayaz. Guziyak ondo irten ziran erakasteko miatza edo *examiñan*, beren ogenak aitortu zituzten apaizaren oñpean, t'urrengo egunaren, pozez ta pozez sai zeuden.

Betor nerekin irakurlea. Kanpain-dorreako eskil zorrotz ta so-



ñulariyak ekin ta ekin ziarduten chango batez. Eskil ayen soñu ederrak berotu ta girotzen zituan elizarontz zijoazenen biyotzak, ta lenengo jo-aldiyan azaldu ziran eliz-inguruetan, an t'emen, alde batetik eta bestetik, goiz artan Jauna artu bear zuten mutil ta neskak: guziyak arretaz apainduak, illeak orrasatuak, esku ta arpegiyak guztiz garbiyak eguzkiyaren erlantzean bertan igortsi balituzte lez. Soin ederrenak jantziyak zeuzkaten, t'etzirudizkidan geyagokoak apaintza ayek, Jaunari geigo ta geigo dagokiolako.

Neronekin daramat nere lenengo Jaun artutearen oroitza: t'etzadala inoiz astu ta urratu, oioitz ortatik errenkadan daramazkit bada, izerdiyak, lanak, aramak, nekeak, mingoztasunak, giro on ta charrak, beste biziteko ajolak, ta Jaunak gorde nazala bere adizkidetasunean beti ta beti.

Meza asi zan, t'apaizak eliz-jantzi ederrenak beragan zituelarik,

eman zien mutil ta neškai, meza artean, egiaz altare an dagoen Jaungoikoa: eresi ederrak otsatu zituzten, t'apaizak ederki agertu zien bere naya: orduan bezela Jaungoikoaren adizkide izan zitezela beti, t'amaitu zuen itzaldiya, esanaz: Jauna, gaur zureganatu dituzun biyotz gazteak, biyotz argiyak, biyotz ederrak, gorde itzazu zuretzat betiko: ez ditezela loitu, ez ditezela galdu; arren ta arren!

Meza bukatu zanean, eliz-atariko poza ikusgarriya zan. Ango esku-muñak! ango alaitasunak! ango onginayak! ango begirada gozoak! ango goresmenak!

Atsegin batek ernaitzen zituen eliz-atariyan zebiltzan guziyak, t'orrelako alditan lengo kurrunka t'ezinikusiyak ziara chiortu t'itzulitzen dira.

Baiñan dasat nere bi mutillen aldez, Jauna artu baiñan lenago, eren aitormenen aurretik, adizkidetu zirala bataren ta bestearen amaen otutzaz.

Kulubiš ta bere ama, egun, batez joan ziran Kabušaren echera, t'an-chen pakeak egin zituzten.

—Bakartzen aldezute alkar?

—Bai andrea, erantzun zuen Kulubišek biyotz-biyotzetik.

—Bai, esan zuen Kabušak.

Ziñezko barkamena zala Kulubišena, ontan ez daukat zalatzarik: Kabušak bai esanta, biyotzean sugeldorik ote zuen, iñork ez daki.

RAMON INZAGAKAY, *Apaiza.*

(Amaituko da.)



KULUBIS

III

Kulubistar zarrak il ziran: amona, aita t'ama: gasteak erne zeuden orain ekarri nai detan ariko aldiyan. Len esandako gertaldietatik, ogei urte igaroak ziran, ta Kulubiš, gure Kulubiš, eskondua zan kayeko Belarritar-echadiko emakume lirain, maratz ta panpotsa batekin. Baziran Kulubistar berriyak, oso berriyak, Kulubiš gaztiaren seme-alabak. Kulubiš-amaya beste itsaserri batera eskondu zan. Gazteak bada eutsitzen zuen aitaren ta aurretikoen echea, len aitatutako eche chiki ura, t'arrantzaleen jardun astun ta larriya zegien, bizkortasun t'igarapen aundiz. Chalupa chiki bat bazuen, emastearen izenekoa «Konchesi», ta bertan sayatzen zan itsasoari errayak astintzen, oyetatik ateratzeagatik, bere, emaztearen ta seme-alaben janbidea.

Irakurlea balego, nik dakidan arresi batetik, ikusmiran mendirontz, ikusiko lituke eche chikiyaren atariyan, jolatsean, bi neska ta multicho bat, Kulubišen seme-alabak. Urte guchikoak dira, ta aitag eta amak esaten die sarritan, atari artatik ez pitin bat-e urrutiratzeko. Chikienentzat ez ta agindua, bai baiñan ume-etan zarren dan neškarenzat, beste ume askok bezela, dakarrelako kai-gañerako griña ta zaletasuna. Irurak dabilta josta ta josta, parrez, algaraz. Zer ume mardoak diran! Arpegi zabalak guziyak dituzte, begi beltz erlazdunak, masail lodi ta gorriyak, ille-mataz ederrak, ikusi ta gozotasunezko indar batez, nai ta naye lez, maitatutzen diran ume-zoragarriyak.

Asko aldiz, igotzen nitzan eche artara; ume eder ayek ikusten nituan; opariyak ematen nizkien: aingeruak ziruditen, ta sakela opariz beteta, neritzan, erosoan zala nere ikustaldiya. Batek mušu zezadan, bestiak *ma*, bestiak *pa*, ta aurren abegi onali aita ta amarena zekarkidan.

Kulubiš zorioneko bizi zan bere echadian; bakar bakarrik, Kabušak zegizkion purrustadak min zemayoten biyotzaren erdi-erdiyan.

Kabuša artian Kabuša, makur ta maltzur beti Kulubišentzat, gaizkille purrukatua izan ezta, alako gaitsumak egiten zizkion noizik bein. Arrantzale artean, beste gizartean lez, alkarren laguntza bear izaten da. Kulubišek zer edo zer bear zuenean Kabušagandik, beldur izaten zan mesedea eskatzeko, t'etzebillen arrasoiz soilla, eska ta uka berdin izaten ziralako. Baiñan Kabušak, preminte batean eskatsen bazion Kulubiš-i edo sarea, edo kordelak, edo estropuak, edo arraunak, edo chalupa, Kulubišek bazekielako kayean, eta bai edonon, bekaizte ta gaizkinayak mai-

tasunaren eta onkaitzen luzerapen galgarriyak dirala, emango zion sareakin salabardoa, kordelakin estacha, estropuakin toleta, arraunakin lema ta lemakaiña, chalupakin atsapar artean zebilkien edozein tresna.

Alaz ere Kabuša beti Kabuša, makestuanai-petralaz.


Sarritan atsekabetua egoten zan Kulubiš; sarritan itsasotik izerditan blei etorrira, echan sartu orduko, mingoztasun batek eltzen zion, ta eldu sakonki, olagarroaren uarro batek eldu baliyo lez.


Baiñan bein, bes-tetan baiñan zarrapastada izugarriagoak, mudurri zeukan. Ala zesan bere gelan bakar

zegoela, itsas-soiñak kentzen, beste kaleko soiñak jantsitzeagatik:

—Gezurra dirudi, baiñan egiya da, ume petral orrek gaur egin didana. Arrauna bota!..... ta baldin pitin bat gorago bota balu, ta indar geigokoin, joko ninduan kaskarren erdiyan..... ¡Petralla, alen petralla!..... Baiñan barkatzen diot, bai, gaizki egiña! Arrantzalea naiz, ta arrantzale baiñon geigo kristaba, ta arrantzale-kristau baten biyotzean, ezta ereiten loilorik, ernetu ere ez kurrunka-bizarrik.

Kabušak kurrunka zerion Kulubišentzat, chipiroyak salda-beltza edo tinta lez; bekaitza zeukayon, sabiroyak bizkarrian estena bezela. Zerga-





tik? Gaiztoai galdetu bear zaye, zergatik onai diyen amorrua. Ordu da, egin dedan chibista askatzeko.

Sarritan negarrak ugaritzen ditu malkoak kai-erritan: oju ta dea-dar minduka ipiñi ere bai kaitarrak: atsoak, emakumeak, gizonak, aurrak. Berez arrizgarriya da arrantzaleen langintza, ta ziurren daudenian itsasoaren erdiyan, beartuak izaten dira, giro ona char biurtzen dalako, aldezaketen laisterren echeratzera, bidean larritasun ta neke asko igaro-ta baiñan.

Bendebala!..... Ikara dakarkit aipatze utsak.

Ekaitza!..... Batek chalupak itsaso-amiltokian jartzen ditu, besteak, gesal biurtu-ta, irentsi.

Eskolan, ipui batean, erakasten ziguten, astoak eta leoyak zegitena. Bendebala orrulariya-da, ekaitza beti irenle.

Sargoi zegoen giroa egun batez: chalupak kanpoan ziran, urruti geyenak. Arratzaldean aize burrundari bat irten zan, estakit nongo orzi-zulotik, ta itsasoan zebillearik, au eramorraturik ta orruaz jarririk, eldu zan chistuka t'aserreka kayera.

Ango aizearen burrundada! Idikiyak idoro zituen ate, leyo ta leya-tillak astindu zituen ederki; ta kirriz ta karraz, ichi t'idikiko zarata gordiñean zerabilzkien punpataka. Kai-belardi batean legortzen zeuden soi-ñeko zapi ta mantarrak, jaso, goratu, goyetan onuntz t'aruntz erabilli zituen; bere zurrungilloan izugarrizko birak eman-arazi zien (ura zan sorgin-dantza), ta atso ta emakume chimadunai jarri-erebai bigaramoneko billa-billakan lana. Echetako tellak dar-dar zeuden; suburu edo chiminiyak kolokan, eren lekutik irtetzeko soriyan; chalupak, kayean amaratuak, alkar joka ta trankaka, uraren t'aizearen bultzadaz zebiltzan. Kaitarrak nabaitu zutenean bendebal zipotza, zegozkieten ardurak egin-da, jarri ziran beti luza-luzaro dirauten mingoztasun ta salantzetan.

Indrizka t'eudi-jasa izugarriyak eldu ziran ondoren. Orrelako aldi larrietan, gogoamen batek ta kezka berdiñak zanpatzen dituzte kaitarren biyotza, gogoa, adimena ta kordeak.

Gure-chalupak! au zan guzien ojua, ta chalupak esan-ta, batek aita zesan, bestiak senarra, bestiak semea.

Bazetozen arrantzaleak, makiña lanez, echerontz. Batela, potiña, treñnerua, kaleruo asaltzen zanean kayetik urbil, alako astuntasuna itsulitzen zizayoten barrendik legorrean zeudenai, ta orko edo ango gizonak bazetozela zabaltzen zanian, señaideak poztutzen ziran, baiñan neskaren azkeneko zizpiriyuak ta zotiñak etzitzazkaten joaten, aliketa

eren gizonak kai-barrenen ikusi arte. Kulubiš lenena sartu zan kayean: urren beste arratzale asko, t'illunpeak menderatu zituenean bazterrak, bat echeratu gabe zan: Kabuša.

Bere emazteak zesan, aldameneko itsaserribatera joan zala baskal ondoan zeregin bategatik, ta gajua! negarrez irrikitzen zegoen, iruditza illun ta saimintsuenak erabillirik bere buruan:

—Nere senarra, nere senarra!

Icharon ta icharon zeuden arrantzale ta kaitar asko: orduak igaro, t'etzan gizon galduaren zantzurik.

Erabaki zuten gizon ayek itsasora irtetzea Kabušaren billa; ta orre-lako erabakitzetan neurtu bear dira itsasgizonen biyotzak, zenbateraño-ko edertasunen mamiya duten: premiyak eskatzen duenian, gaiñezka damazkiote premiyari oparitzak. Ala gertatu zan, alkarren-leyaz zebiltzan chalupan sartzeko: etziran sartu, bear bearrak besterik, ta *boga* ta *boga* itsasoari arpegi eman zioten.

Itsasoak indarrak ugaritu zituen, ta chalupa salbatzalleak, une be-rean, igarri ziz-

kion indar oyek.
Lana pranko erak
garaitzen! Alde
guzietatik urak
ebaki zuen zitalki:
panelpeak urez



beteak zeuzkan, ta bagak, aurrean zemayoten jo aldiaz, zabaltzen zituz-ten eren bitz t'aparrak, ta barrengo itsas gizonak ondo, baiñan ondo, beratu ziran gezaletan, ordu-laurdeneko jardunean bakarrik.

Arraunlariyak etzuten chalupa aurreratzeko geigo kemenik: itsa-soak zerabilkien zaletzen zizayon naye ta gisaz, onuntz, arruntz, ba-tean korasta gorenduaz, bestean karelak irentsi-az.

Patroyak igarri zuen arrizkoa; mutillak, oju zegien, guazen echera! ta gizonak biurtu ziran, bakoitzak bere buruari zesala: galdua dek Kabuša.

Baiñan etzan orrela. Kabuša igesi zebillen arroka sail baten ingu-ruan. Tirabira egin zuen bere batelchoak. Ikara zorrotz ura igarota, oraindik-e bizi zan Kabuša, baiñan larri.

Baga batek jo, ta zinzilika jarri zuen arroka batean: atsak ezarri zizkion gogorki, ta beraldiyetan naiko sayatu zan arrokan goruntz igo-tzen. Estu zebillen, ta atsedan-chango batean begi aundi-aundi gorri-

yak goruntz begira zeuzkan. Zerbait ikusi zuen, ta poztu zan. Zer?.....

Kulubisen echea, goyan arkaitz-gañean.

Negarrez, marruaz, gizarajuak, oju ta oju zegien:


—Kulubis!..... Kulubis!..... Kulubis!..... Kulubis!.....

.
.

Kulubis jechi zan arroketara: bota zion chikote bat: bero beso erimez goratu zuen, t'aurrez-aurrez ikusi zuten alkar.

Kabusa etsin zan belardi chiki batean, nekez, miñez, ta lotsez ere bai. Kulubisek, goşoki bizkar gañean arturik, eraman zuen bere echera, ta echian etsinarazi zuen bere oyea bertan. An atera zizkion soñeko bustiyak, berriyak ezarri, ta Kabusak, asnas-arteka, etzuen beste itzik aoan: Ah

Kulubis! ah Kulubis! Ona aiz Kulubis!



Kabuşak lo egin zuen, baiñan lo kuluşka: gero goragale batek eldu zion: bota zituen irentsitako gezalak, ta biyotzean zeuzkan kurrunka ta zipozkeriyak: Kulubisen emazteak eman zion konketa bat kamamillu, aurrak, esna zeuden-ta, *ma* ta *pa*, ta lo-sorroan ziraun

bere emaztea ta beste arrantzale asko eldu ziranean jakin zutenean, Kulubistarretan zegoela.

Gero zer gertatu zan?

Bakar-bakarrik dakit, gero oso adizkide izan zirala, il arteraño, ta Kabuşak zesayonean Kulubisi ona zala, onek eranzuten ziola: gure lenengo Jaun-artutea baiñan len, adizkidetu gindukan. Geroztik, ik beti irain, beti iseka; bein arrauna bota idakan..... t'astero-astero nigan zetorren Jaunak Komunioz esaten zidakan: barka, barka akiok, ta nik barka ta barka : ik ateza, ateza, nik erria ta erria!.....

RAMON INZAGARAY, *Apaiza*

(Amaitu da.)